

Zarata arrakala



**ANE LABAKA
MAYOZ**
BERTSOLARIA

Pribilegiatuak horren barneratuta izan ohi ditu bere pribilegioak ezen gehienetan ez baita izan badituenik ere ohartzen. Pribilegiatuak opor idealei buruz hitz egin lezake kideekin, behar eta nahi beste elika litzake bere fantasia guztiak, baldin eta uneren batean biriketan arnasa falta zaiola sentitzen badu.

Eguzki bila abiatzen gara batzuk, kresalaren igurtzi bila; mendi aldeko aire garbienaren bila, bestela. Paren-tesiengatik ordaintzen dugu. Mugituko eta mugiaraziko gaituzten esperien-ziengatik, batzuetan; bizipen, kolore-gama, paisaia, usain, zapore... berriak geuretzeagatik, eta pilatzeagatik. Besteetan, berriz, bakea lehenesten dugu beste guztiaren gainetik. Geure baitara bil-bil eginda egoteko moduko txoko bat nahi izaten dugu; oihalezko hamaka bat zintzilik zuhaitzetik zuhaitzera, txorien kantua, eta liburu on batzuk. Lasaitasunagatik ordaintzen dugu horrelakoetan; isiltasunagatik.

Oraintsu arte ez naiz sekula azken bi horiek elkarlotzera iritsi. Ez dut kontzienteki pentsatu izan isiltasunaz, eta ordaintzeaz; isiltasuna ordaintzeaz, isiltasunagatik ordaintzeaz. Lagun batek egindako hausnarketak akuilatu ninduen duela gutxi eta, beste ezer baino

lehen, telebista-iragarki bat etorri zitzaidan gogora. Zaratarik ateratzen ez zuen garbigailu bati buruzkoa zen iragarkia, badira urte batzuk ikusi nuela.

Hain zuzen ere, munduko zatitxo batean ordaindu egiten da garbigailu, xurgagailu, irabiagailu eta gainerako-gailu guztiek ahalik eta soinu gutxien izan dezaten. Munduko zatitxo batean, jendeak haserre bizian egiten du izarapetik leihora artekoa, jaiegunez eta goizean goiz etxe pareko lurra zulatzen hasi diren langileekiko edo bazkalosteko siesta-ordu sakratuan kanpoan lanean dabiltzan kale-garbitzaileekiko klase-elkartasunez.

Munduko zatitxo horretatik kanpo, ordea, kutsadura akustikoa hertsiki lotuta dago antsietatearekin, estresarekin, loezinarekin... eta, oro har, ongizate faltarekin. Kanpoko zaratak zarata sortzen du barruan ere eta, behin zarata barren-duz gero, akabo isiltasuna.

[Gera zaitetz isilik tarte batez. Zer entzuten duzu?]

Pribilegiatuak horren barneratuta izan ohi ditu bere pribilegioak ezen gehienetan ez baita izan badituenik ere ohartzen. Pribilegiatuok horren barneratuta izan ohi ditugu gure pribilegioak ezen gehienetan ez baikara izan baditugunik ere ohartzen. ●

Froga



**LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI**
IRAKASLEA

Gernika bonbardatu zutenak ez ziren txarrak, ezta bonbardatuak hain onak ere" bota zuen lasai asko telebistan audientzia handiko saioan iritzi-emaile batek. Tertuliako inork tutik ere ez zion esan.

"Torturatu egin ninduten: etxean lotan nengoen, eta gauaren erdian agente talde bat indarrez sartu zen abisatu gabe; aurpegia estalita zeramaten, ohetik altxatu eta hormaren kontra jartzera behartu ninduten. Beldurra pasatu nuen, ez zidaten utzi ukitzen ondasun pertsonalik, oso armatuta zeuden. Izua izan nuen, gainean egin nuen txiza..." jaurti zuen burlaizez Espainiako Kon-

gresuan diputatu izan aurretik Estatu-ko abokatua zenak.

Felipa Artano Joxi Zabalaren amak gastu judizialak (9.256,02 euro) ordaindu beharko ditu, semea terrorismoaren biktimatzat onar zezaten jarri zuen helegitea atzera bota ziotelako.

2022ko apiril eta maiatz artean gertatu dira hirurak, normaltasun osoz. Politikariak espiatu dituztela ere zabaldu da. Ia inor ez da asaldatu. Bitartean, harritura ultraeskuina goraka doalako.

Aitatutakoak tolerantziaz hartzea da eskuin muturra gizarte-kontzientzian onartuta dagoelako froga. ●